

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**131/2017 Foru Agindua, apirilaren 6koa, onartzen duena nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko ematen diren laguntzen, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuan arautzen direnen, 2017rako deialdia. Dekretu hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen**

Ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaizen nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak emateko oinarriei.

Dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2007-2013 Planaren esparruan onartu zen, honako xedapen honetan ezarritako mugen barruan: Kontseiluaren (EE) 1698/2005 Erregelamendua, irailaren 20koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bitartez landa garapenerako laguntza emateari buruzkoa, eta horren aldaketak.

Landa garapenerako plan hori amaituta, eta Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programa berria onartuta, Nekazaritza Sailak gogoan hartu zuen laguntza lerro hori laguntza kofinantzatudun programa horren barruan ez sartzea, baina hura emateko beharrezkoak diren aldeketekin mantentzea.

Horrengatik, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 64/2016 Foru Dekretuaren bidez, 35/2014 Foru Dekretuaren 4. eta 12. artikulua aldatu ziren hura egoera berrira egokitzeko, 4.5 artikuluko bigarren paragrafoa ezabatuz, zeinean, alde batetik, LGNEFen finantzaketaren identifikazio ziguilaren bidezko fakturen kontrola eta, bestetik, laguntzaren finantzaketaren jatorria aipatzen baitziren.

Nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzen 2017rako deialdia onartu behar da, eta horri aurre egiteko beharrezko kreditua gorde.

Horrengatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko ematen diren laguntzen, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuan arautzen direnen, 2017rako deialdia onartzea, ondoko xehetasun hauen arabera:

– Eskerak aurkezteko epea: maiatzaren 2tik ekainaren 1era, biak barne. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

– Eskaintzak aurkezteko lekua: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean eta harekin hitzarmena izenpetu duten erregistro lagungarrietan, bai eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren bulegoetan ere, 35/2014 Foru Dekretuaren 3. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

– Kreditu erreserba: 59.348,64 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren 40.1.01.42.01.481.00.01 "Aholkularitza zerbitzuak erabiltzea" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 17.1.17.105.1495/000).

— Aurten, laguntza lerro honetarako deialdia egiten da 2016an egindako aholkularitza zerbitzuetarako, eta 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 6a

*Nekazaritzako foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**